



HERRIGINTZATIK EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO PROIEKTUA

Aurre ezagutza aktibatu! Hausnarketarako ildoak. **Irakaslearentzako gidoia. Ariketa honekikasleen artean hausnarketa bideratzea du helburu. 45-60'-ko saioa aurreikusten da.**

- Azaldu ikasleei zein den ariketaren helburua. Banaka jar itzazu eta eman bakoitzari orri zuri eta arkatz/boligrafo bana.
- Kopia dezala ikasle bakoitzak beheko taula bere orrian.

	Hizkuntza	Zergatik?	Euskaraz izateko aukerarik ikusten duzu?	Zergatik?	Nola?
Familia					
Gaztetxea					
Lokala					
Tabernak					
Dendak					
Parkea					
Herriko Plaza					
Jaiak / Txosnagunea					



- Azaldu ikasleei nola bete behar duten taula. Galderen erantzunetan euskaraz egiten dutela erantzuten duten kasuetan, lerro bakoitzeko lehenengo bi gelaxkak baino ez dituzte bete beharko. Beste hizkuntza bat erantzuten duten kasuetan, aldiz, lerro osoa bete beharko dute.
- Galdera guztiei erantzun eta gero, jarri ikasleak talde txikietan. Eman 10 minutu beraien artean erantzun dutena komentatzeko eta konparatzeko.
- Azkenik, talde handian, erantzunak komentatu. Jasotako erantzunekin idatz itzazue ateratzen dituzuen ondorioak.
- Bukatzeko, gaiarekin kontzientzia hartzeko, talde txikietan lanean aritu direnean erabili duten hizkuntzaren inguruan galdetuko diegu. Euskaraz aritu ez diren kasuan zergatia aztertuko dugu.
- Bigarren fasean egingo den lanketari ahalik eta etekin handiena ateratzeko, fase hau garatzea gomendatzen dizuegu eta bertatik jasotako ondorioak Euskararen Etxera bidaltzea: bisita@euskararenetxea.eus



ONDORIOAK LANTZEKO ILDOA

- Zein da herrian orokorrean nagusitzen den hizkuntza?

- Zergatik?

- Esparru guztietan nagusitzen da ala bakar batzuetan? Zeintzuetan?

- Zergatik?

- Hizkuntza ohiturak aldatzeko aukerarik ikusten da?

- Nola?

- Ondorioak: